

20
24

URTEKO MEMORIA —



Sarrera

Next diru laguntzei esker egingo diren interpretaziorako azpiegituren kontzeptualizazioa eta haien garapena izan dira aurtengo zereginik aipagarrienak. Bi urtetan Geoparkeko eskaintza guztiz aldatuko da eta aurten jarri ditugu aldaketa horren oinarriak.

Bestalde, geoparkeen organoetan ordezkaritza indartzen jarraitzen dugu, nazioarteko entitateetan, IUGS, GGN eta EGN baita estatu mailan ere, sortu berri den Espainiako UNESCO Geoparkeen Elkartearekin, geoparkeen figura indartu eta amankomunean

proiektuak garatzeko erreminta indartsu bat izango den heinean.

Marketin plana ere indarrean dago gero eta arlo gehiagotara zabaltzen. Geoparkeko irudia eta mezuak lurralde guztira eta arlo ezberdinetara hedatuz.

Kontserbazioak ere garrantzi berezia izan du aurten aurrera eraman diren habitaten kontserbaziorako proiektuekin. Hurrengo urteetan egingo den jarraipenak emango dizkigu ekimenaren emaitzak.



01

Zientzia, Kultura eta Hezkuntza


ZKH1

IKERKETA ETA
DIBULGAZIOA GEOLOGIA
ETA LURRAREN
ZIENTZIAK, ORO HAR

1.1.1.

Geologia interesguneen inbentarioa

- **Lig&Click** karta-joku dibulгатiboa sortu dugu, Geoparkeko Geologia Interesguneak modu ludikoan ezagutzera emateko.
- Martxan den ikerketa-bekari esker, labarretan Geologia **Interesgune berriak identifikatzen** jarraitzen dugu.




ZKH1

IKERKETA ETA DIBULGAZIOA GEOLOGIA ETA LURRAREN ZIENTZIAK, ORO HAR

1.1.2. Ikerketa-programa

- Geologia eta Lurraren Zientzien ikerketa bultzatzeko Geoparkeak egindako **diru laguntzen deialdia** “*Coastal Landforms of the Basque Coast UNESCO Global Geopark – From Inventory to Geomorphological Map*” proiektuak irabazi du. Italiako Unimore eta Poloniako Wroclaw unibertsitateetako adituak parte hartzen ari dira egitasmoan.
- Beste **unibertsitateekin elkarlana**: UPV/EHU, Zaragoza.artzelona, Manchester, Mexico...



ZKH1

IKERKETA ETA DIBULGAZIOA GEOLOGIA ETA LURRAREN ZIENTZIAK, ORO HAR

1.1.3. Dibulgazioa

GEOPARKEAN

- **Gidariak** trebatzeko ikastaroa
- Ikasleei bideratutako **bisita gidatuak**

GEOPARKETIK KANPO

- Nazioarteko kongresu, webinar eta **topaketetan parte hartu** eta hitzaldiak eskaini: Euskal Herria, Espainia, Portugal, Ekuador, Mexico...



ZKH2

ONDARE ARKEOLOGIKOAREN ETA HISTORAURREAREN IKERKETA ETA ZABALKUNDEA

- **Ermitia** eta **Praileaitz** kobazuloen ikerketak bultzatu eta jarraipena egin.
- **Gipuzkoako GEOLODIA 2024** antolakuntza, EHU-ko Asier Gomez ikertzailearekin batera



ZKH5

INGURUMEN HEZKUNTZA

1.5.1. Geoeskolak

- **Programa didaktikoaren jarraipena eta koordinazioa** egin da. Lurraldeko hainbat ikastetxeko 500 ikasle hartu ditu programak.
- DBHko eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterraren baitan, *Amoniteak, Mutrikuko fosil erraldoiak* eta *Gepoparkeko barrualdeko paisaia* lantzeko **programak berrikusi eta irakaslearen gidaliburu berriak** egin dira, Arazi Kooperatibarekin elkarlanean.



ZKH5

INGURUMEN HEZKUNTZA


1.5.2.

Nazioarteko Egunak eta publiko orokorrari zuzendutako dibulgazio eta sentsibilizazio eskaintza

- **BIOTOP**, Aranzadi Zientzia Elkartearekin batera.
- **Nazioarteko Egunak:**
 - Ingurumen Hezkuntzaren Munduko Eguna. 01/26.
 - Hezeguneen M. Eguna. 02/ 2.
 - Ingurumenaren Nazioarteko Eguna. 06/5.
 - Hegazti Migratzaileen M. Eguna. 05/10.
 - Geodibertsitatearen N. Eguna. 10/6.
 - Hondakinen Prebentziorako Europako Astea. Azaroa.
 - Mendien N. Eguna. 12/11.

1.5.3. Lankidetzak

- Mater elkartearen **Itsas Zaintza Sarearekin**.
- **Surf Rider Fundazioarekin**.



Geoturismoa

02

GE1

PRODUKTU ETA BALIABIDE GEOTURISTIKOAK

2.1.1. Bisita gidatuen programa

- Oreka bilatu asmoz, 2023an **estrategia aldaketa** bat egitea erabaki zen eta **2024an jarri da martxan**, estreinakoz. Helburua bikoitza izan da: irteera gidatuak eskaintzen duten enpresa pribatuei aukerak zabaltzea, eta, bestalde, gutxien ateratzen diren bisitak indartzea.
- Datuak baloratuta, estrategia aldaketa egokia izan da, nahiz ta hurrengo urteetan hobetzeko margena eduki. Bisiten **programazioa %30a murriztu da, parte-hartzaile kopurua %10 besterik ez da jaitsi, eta oreka ekonomikoa mantendu da.**





BISITA KOPURUAREN PROGRAMAZIOA			PERTSONA KOPURUA		
2023	2024	%	2023	2024	%
1.545	1.087	-30%	12.250	11.113	-9%

Irteera gidatuetan parte hartzen dutenen 1046 asebetetze-inkesta jaso dira 2024an eta batez besteko balorazioa 10etik 8.9koa da. Ondoen baloratuta dauden alorrak: jasotako arreta (9.3 puntu), erreserba prozesua (9.3 puntu) eta gidariaren azalpenak (9.2 puntu) izan dira.

Baloratutako alorrak (1-10)	Balorazioa 2023	Balorazioa 2024
Iritzi orokorra	8.9	8.9
Erreserba prozesua	9.2	9.3
Gidariaren azalpenak	9.2	9.2
Prezioa	8.4	8
Medioen balorazioa	8.5	8.5
Jasotako arreta	9.6	9.3

GE1

PRODUKTU ETA BALIABIDE GEOTURISTIKOAK

2.1.2. Baliabide turistikoak

- **Geoparkeko Bira:** Ibilbidearen diseinua, seinaleztapena , trackak, mapak eta online informazioa sortu eta geoparkea.eus webguneko atal propioan bildu da. Sustapenerako materiala (eskuorria eta bideoa) sortu eta banatu da. Proiektua borobiltzeko merkaturatze pauso bat besterik ez da falta.
- **Geoibilbideen sarea.** Sei Geoibilbideen informazioa biltzen duen PDF eskuorriak 4.029 deskarga izan ditu aurten, lau hizkuntzetan.



GE1

PRODUKTU ETA BALIABIDE GEOTURISTIKOAK

2.1.3.

Produktu turistikoen hobekuntza eta berrikuntzak

- **Flyscha belaontzian** bisita berriaren jarraipena
- **Flyscha haurrekin** bisita pilotuak, 2025ean programa ofizialera gehitzeko..
- Espainiako Korridore Berdearen proiektua




GE2

SUSTAPENA ETA MERKATURATZEA

2.2.1. Promoziarako materiala

Turismo bulegoetan eta azoketan aurkezteko erabilgarri zegoen materiala berrargitaratu da, esaterako, bisita gidatuen liburuxka. Geoparkeko Bira produktu turistiko berriaren eskuorria diseinatu eta argitaratu da.



GE2

SUSTAPENA ETA MERKATURATZEA

2.2.2. Azokak

- **Fitur** 2024, Madril: Historiaureko Bailara proiektua aurkeztu da. Espainako Geoparkeek stand propioa izan zuten lehen aldiz.
- **Basque Fest Bilbao.**



GE2

SUSTAPENA ETA MERKATURATZEA

2.2.3. Turismo agenteekin harremana

- **Ekoturismoaren VII. Nazio Batzarra**

Euskal Kostaldeko Geoparkea izan urriaren 22tik 24ra ospatu den kongresuaren egoitza. Guztira, 200 profesional baino gehiago bildu dira Zumaian arloko estrategiak aztertzeko, ezagutzak partekatzeko eta Espainiako ekoturismoaren orainaz eta etorkizunaz eztabaidatzeko.

Hitzaldiak, mahai-inguruak eta helmugetako eta enpresetako esperientziak partekatzeko espazioak izan dira jardunaldi tekniko hauen ardatz. Espainian Ekoturismoaren merkaturatzea bultzatzeko helburuarekin, Batzarrak kontratazio mahai bat ere antolatu du.



Beste ekitaldi batzuk:

- Euskadiko Ekoturismo Sarearen lan-mahaia.
- Euskadiko xendazaletasun garapenerako jardunaldia.
- Gipuzkoako Turismo-Industriaren I. Topaketa.
- Gipuzkoako liburuxka turistikoa eta behatokiaren aurkezpenak.
- Debabarrena Turismo-Helmuga Adimendunaren lan-mahaia.
- Euskal Kostaldeko Museoen Sarearen programa.

2.2.4. Bisita gidatuen merkaturatze eta salmenta

- Debako, Mutrikuko eta Zumaiako turismo bulegoen bitartez.
- Webguneen bidez: geoparkea.eus, soyecoturista.com eta wildsea.eu.
- Erreserba plataformetan: Turismo Vasco, Civitatis eta Get Your Guide.

2.2.5. Fam-trip espezializatuak

- **Estatuko zein nazioarteko komunikatzaileen bisitak** izan ditugu: Lyon Capitale (Frantzia) aldizkaria, apirilean. Prisa Revistas, El Confidencial, TOB Strategy eta Ronda Iberia, Estatuko hedabideetako kazetariak, maiatzean.
- **Turespañak** ekarritako **nazioarteko 11 operadore** egon ziren Euskadi bisitatzen, baliabideen artean egun bat egin zuten **Geoparkea bisitatzen**, Ekoturismoaren VII. Nazio Batzarraren harira.





Lurraldea eta Kontserbazioa

03

Plan Estrategikoan jasota dagoen bezala, iaz hasi ginen Geoparkeko seinaleztapena indartzen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dugun hitzarmenaren baitan. 2024ean, **barneko seinaleztapena indartu** da, Geoparkean ditugun interesguneak geoparkearekin lotzea ikusgaitasuna zabaltzeko helburuarekin. Guztira, 13 totem ipini dira.

LK1

IBILBIDEAK ETA BIDEZIDORRAK DISEINATZEA

- Santiago, Zumaia
- San Telmo (Zu)
- Itzurun (Zu)
- Elorriaga, Deba
- Baratzazarrak (De)
- Sakoneta (De)
- Santa Katalina (De)
- Mendata (De)
- Lastur (De)
- Olatz, Mutriku
- Saturraran (Mu)
- Burumendi (Mu)
- Itziarko Bista (De)





LK3

LURRALDEA INTERPRETATZEKO AZPIEGITURAK

- **HAB** proiektuaren 2. fasearen garapena.
- **Algorri, Flyscharen Interpretazio Zentro berriaren** proiektu museografikoa lizitzatzeko prozesuan parte-hartzea.
- **Moilaberri harrera zentro berriaren** musealizazioaren aurreproiektuan parte-hartzea.
- **Mutrikuko Santa Katalina komentua**ren aurre-musealizazio proiektuan aholkularitza.
- **San Telmo-Algorri ibilbidean** hezitzailea, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Zumaiako Udalarekin elkarleanean.



LK5

NATURA-INGURUNEAREN ETA, ORO HAR, ONDAREAREN BABESA ETA KONTSERBAZIOA

- UPV/EHU eta GFArekin batera, **Errotaberriko erreka**ren naturalizazio prozesua abiatu.
- Baso-igel iberiarraren **kontserbazio-proiektua**, Ekoturismoaren VII. Nazio Batzarraren babesarekin.
- *Biodibertsitateari buruzko apunteak* izeneko **liburua** argitaratu dugu.

04

Bertako garapena eta iraunkortasuna

BS2

LEHEN SEKTOREA BULTZATZEA

GeoGourmet Gozoa sorta berria merkaturatu dugu, Geoparkeko hiru ekoizleen produktuak batuta (*Zortzikoren ezia, Txindurri Iturriren sagardoa eta Goxarten txokolatezko opilak*).

BS3

GEOPARKEZALEAK

Turismo sektoreko entitate laguntzaileekin informazio eta jarraipen bilerak egin dira urtean zehar.

Lehiakortasunari dagokionean, Geoparkea eta bere 24 entitateak **Espainiako Ekoturismo Klubeko kide** dira eta Basquetourren **Kode Etiko programaren** barruan daude.


BS4

EUROPAKO GEOPARKEEN ASTEA

Astearen 15. edizioa egin zen Euskal Kostaldeko Geoparkean, maiatzaren 18an hasi eta 26a bitartean eta bi asteburutan banatuta. Denetariko ekitaldiak antolatu ziren eta adin guztietako ehunka herritarrek parte hartu zuten egitarauan Geoparkeko hiru herrietan, hau da, Deban, Mutrikun eta Zumaian.

EGITARAUA:

- Histoiarurreko Bailaran bisita gidatua
- Flyscha haurrekin tailerra
- Olatu Plantari bisita gidatua
- Ate irekiak Nautilus ikasgune geologikoan
- Geotalks: El Hombre y la Tierra
- 'Biodibertsitateari buruzko apunteak' liburuaren aurkezpena
- Geoparkeko Biraren etapa bat osatzeko irteera
- Biotop: Zumaiako Talaimendiko flora eta fauna
- Mikroipuin Lehiaketa



05

Geogarapen: Komunikazioa, Marketina eta Geoparkearen kudeaketa



GKG1

PROIEKTUAREN GOBERNANTZA, ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA OROKORRA

1.1. Lan-taldea

- Gerentzia
- Turismo Saila
- Zientzia Saila
- Ingurumen-hezkuntza Saila
- Komunikazioa eta Marketin Saila
- Debako, Mutrikuko eta Zumaiako udaletako teknikariak



1.5. Gobernanza

Geogarapen Euskal Kostaldeko Geoparkearen Kudeaketarako Elkarteak honakoak osatzen dute: Debako, Mutriko eta Zumaiako Udalak; Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, UNESCO Etxea, Aranzadi Zientzia Elkarteak, Debemen, Urkome, Debegesa eta Urola Kostako Mankomunitatea.

Entitateak bi organo hauen bitartez kudeatzen dira: Zuzendaritza Batzordea eta Asanblada Orokorra. Honako hauek izan dira 2024ko ekimen nagusiak:

- Gestio plana onartzea
- Finantziaketa plana onartzea

GKG3

EGN, GGN, UNESCO eta NAZIOARTEKO SAREAK

Euskal Kostaldeko Geoparkea Europako eta Munduko Sareetako kide da. Sare oso aktiboak dira biak, lan taldeetan eta osoko bilkuran batzen dira (aurrez aurre zein modu telematikoan) eta partaidetza derrigorrezkoa da. 2024 urtean IUGS, GGN eta UGGp erakundeetako goreneko zuzendaritza taldeetan parte hartu hartu dugu, geoparkearen nazioarteko oiartzuna indartuz eta kontsolidatuz eta, bide batez, hainbat geoparkeekin elkarlana bultzatuz.

- **EGN:** Turkiako Kula geoparkean egin den **49th EGN Coordination Committee Meeting**-ean eta Islandiako Reykjanes geoparkean ospatu den **17th European Geoparks Conference** biltzarrean izan gara. Azken honetan, 'Geoparkeko Bira' eta 'First 100 IUGS Geological Heritage Sites' ekimenak aurkeztu ditugu. Horrez gain, Europako Geoparkeen sareko zuzendaritza taldearen (EGN-Advisory Committee) bileretan parte-hartzen jarraitu dugu.

- **GGN-UGGp:** Global Geoparks Network (GGN) Executive Committee bileretan parte hartzea, hiilero. UNESCO-k eta GGN-ek antolatuta Lesvos irlan ospatzen den “Intensive course on UNESCO Global Geoparks” ikastaroan parte hartu. “GGN 20th Anniversary” ekitaldietan parte hartu. Mexikoko geoparke sareak antolatutako jardunaldietan hitzaldi nagusia eman du Geoparkeko Zuzendari zientifiko Asier Hilariok.
- **IUGS:** Nairobín ospatutako “Geoscience for Africa” ekitaldian parte hartu, UNESCO Geoparkeak eta IUGS Geoheritage ordezkatzuz Afrikako erakunde geologiko guztiekin batera.
- **CNEG:** Participación en el Comité Nacional Español de Geoparques.
- Estatu mailan ere geoparkeok Espainiako Geoparkeen Foroan antolatzen gara, birtualki. hainbat bilera izaten dugu eta aurten aurrez aurreko bakarra izan dugu, Granadan: IX Jornadas abiertas del Foro Español de Geoparques. Bertan, “Cooperación internacional en Geoconservación” hitzaldia eman dugu. Elkarteari izen berria ematea erabaki da: **RGEM, Red Española de Geoparques Mundiales.**
- **Asociación de Geoparques UNESCO de España** elkartearen sorreran agente aktibo izan gara.

GKG4

KOMUNIKAZIO ESTRATEGIKOA

Lehentasunezko arloa izanik, iaz komunikazio saila indartu egin genuen eta apustu hori 2024ean bere fruituak ematen hasi da. Aurreko urtean erabakitako ildo estrategikoa ardatz hartu eta hainbat ekintza gauzatu dugu.

Batetik, irudi-marka berria aplikatzeari eta sendotzeari ekin diogu, barne zein

kanpo komunikazio guztietan erabilia, hala nola, publizitatean, eskuorri eta mapetan, merchandising produktuetan, webgunean eta sare sozialetan.

Bestetik, tokiko zein kanpoko hedabideekin harremanak sendotu ditugu, bai komunikazio alorrean baita marketing eta publizitate arloan ere.



5.4.1. Online komunikazioa

- **Webgunea:** Geure webgunean 15 albiste argitaratu eta bloga maiztasunez elikatu; Geoparkeko Bira azpiatala sortu; erreserba-sisteman hobekuntzak egin dira.
- **Newsletter:** 10 komunikazio bidali zaizkie harpidedunei.
- **Sare sozialak:** gure presentzia indartzen jarraitzen dugu, jarraitzaile kopurua modu organikoan gehituz.

X: + %2,21

Instagram: + %11,51

YouTube: + %15,44

Facebook: Orrialdeen jarraitzaileak → + %1,13.

“Me gusta/like” → + %0,44.



5.4.2. Offline komunikazioa

- **Prentsa-oharrak:** 12 bidali dira.
- **Irratia:** 17 elkarrizketa eskaini dira, besteak beste, OndaVasca, CadenaSer, RadioEuskadi, Euskadi Irratia, Arrate eta Naiz irratietan. Gainera, Geoparkeari buruz irratsaio monografiko bat egin dute RNEko 'Nómadas' saioan.
- **Telebista:** DMAX katearen 'Curiosidades de la Tierra: España' denboraldiko lehen atalean Geoparkeari buruzko erreportajea; TVEleko 'Zoom Tendencias' saioan Zumaiari buruzko erreportajea; TVEko 'Espacios naturales espectaculares' 6. atalean, Geoparkeari buruzko erreportajea; ETBko Gaur Egun albistegietan agerraldia, septarien Debako erakusketaren harira (euskaraz eta gaztelaniaz).
- **EGN /GGN sareko komunikazioak:** bi erakundeen newsletter eta magazineetan aktiboki parte hartzen dihardugu, maiztasun jakineko kolaborazioak idatziz.



MARKETINA

5.5.1. Materiala

Merchandising elementu berria: A5 koadernoak.
Ekoturismoaren VII. Nazio Batzarrean aurkeztu genuen eta bertaratu zirenei banatu genien.

5.5.2. Publizitatea

- **Bideoak:** Geoparkeko Biraren eta Geoparkearen promoziorako bideo berriak sortu dira.
- **Iragarkiak:** Sud-Ouest+Diario Vasco gehigarrian, Donostiako tren geltokiko Adif pantailetan, SER irratian; Guka kooperatibaren 'Aterpe' atalerako elkartruke akordioa.

5.5.3. Akordioak

GUKA tokiko hedabideen kooperatibarekin; BERRIAlagun akordioa berritu; Animadeba zinema jaialdiarekin akordioa berretsi.

5.5.4. Babesletza

- FlyschBeltza igeriketa zeharkaldia; VII. Lasturko Mendi Martxa, Geoparkeko Karstaren Bira; XV. Flysch Trail 2024; VII. Itziar Trail; Flysch Gravel 2024.
- Euskal Herriko Geologiako XVII. Olinpiaden sariak eta Geologia olerkari, miope eta despistatuentzat jardunaldiak.

**JARDUERA HAUEK GUZTIAK HONAKO
ERAKUNDEEN EKARPENEI ESKER EGIN DIRA:**

DEBAKO UDALA

MUTRIKUKO UDALA

ZUMAIAKO UDALA

**EUSKO JAURLARITZAKO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO
SAILA; INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO
ETA JASANGARRITASUN SAILA**

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO
KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA
KIROL DEPARTAMENTUA; MUGIKORTASUNA,
TURISMOA ETA LURRALDE ANTOLAKETA
SAILA; EKONOMIA SUSTAPENA, TURISMO ETA
LANDA INGURUNeko DEPARTAMENTUA**



GEOPARKEA.EUS



GEOPARKEA 
EUSKAL KOSTALDEA · COSTA VASCA